**Zk-1778**

10/1998 LEGEA, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapenerakoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

10/1998 LEGEA APRIRIALAREN 8ko, LANDA INGURUNEAREN GARAPENERAKOA

ZIOEN AZALPENA

Euskal landa inguruak ekarpen garrantzitsu eta funtzioanitzak egiten dizkio gizarte osoari, kalitate oneko eta nortasun handiko elikagai zein lehengai osasungarriak ekoizten baititu, eta espazioaren kudeatzailea eta natur baliabideen, bioaniztasunaren eta paisajeen administratzailea baita.

Euskal landa ingurunearen funtzioaniztasunak gizarteari egiten dion ekarpena halakoa edo bestelakoa izan daiteke, Euskal Herri osoaren gizarte, ekonomia eta lurraldearen diseinua egitean funtzioaniztasun horri ematen zaion lekuaren araberakoa. Hala, hiri inguruarekiko harremanak orekatu behar dira, eta ingurune erakargarria osatzeko behar diren baldintzak sortu behar dira, inguru hori gauza izan dadin bere biztanle-galera geldiarazteko eta biztanle eta jarduera berriak erakartzeko.

Dena dela, ezagun da ezinbesteko ekipamendu eta zerbitzuak egokitu behar direla (hezkuntza, osasuna edo etxebizitza). Izan ere, faktore horiek, enplegurako aukerarik ezarekin eta nekazaritzan oinarritutako ekonomiek ematen duten errenta urriekin batera, garrantzi handiko oztopo dira landa inguruaren bizi-raupenerako eta, beraz, landa inguruak euskal gizarteari eskaintzen dion funtzioaniztasunaren iraupenerako.

Ildo horretatik, agente ekonomiko eta sozial guztiek aho batez sinatu zuten «Euskal Landa Ingurunea Garatzeko Gizarte Ituna». Itun horrek, bada, Euskadiren barne artikulazioan sakontzeko eta lurraldearen egituraketa sendotzeko behar diren borondateak aitortu eta integratzen ditu, landa eremuen lehiakortasuna bultzatzen duen apustu irmo eta berritu baten bitartez.

Horretarako, landa ingurua, bere arazoak eta bere funtzionaltasuna osotasunean biltzen dituen ikuspegia bermatu behar da, eta, aldi berean, diskriminazio orokor positiboa egin behar da, hots, irizpide ekonomikoen edo gutxienezko biztanle kopuruen erabilera neurtu behar da oinarrizko ekipamenduak hornitzerakoan. Horretarako, agerikoa da euskal gizarte osoa-

**N°-1778**

LEY 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 10/1998, DE 8 DE ABRIL, DE DESARROLLO RURAL

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El medio rural vasco realiza aportaciones importantes para el resto de la sociedad, de carácter multifuncional, como productor de alimentos y materias primas de calidad, personalidad y garantía sanitaria, como gestor del espacio y como administrador de los recursos naturales, la biodiversidad y sus paisajes.

La contribución de esa multifuncionalidad del espacio rural vasco al resto de la sociedad dependerá del encaje que se le proporcione en el diseño socioeconómico y territorial del país en su conjunto, equilibrando sus relaciones con el mundo urbano y creando las condiciones necesarias para conformar un entorno atractivo, capaz de frenar su despoblamiento y atraer nuevos residentes y nuevas actividades.

Sin embargo, resulta evidente que es preciso adecuar los equipamientos y servicios indispensables, como es el caso de la educación, sanidad o vivienda, factores que, junto a la falta de oportunidades de empleo y escasez de las rentas derivadas de unas economías centradas en el sector agrario, suponen un obstáculo fundamental para la propia pervivencia del medio rural y, por ende, de la multifuncionalidad que desarrolla en favor de la sociedad vasca.

En este sentido, el «Pacto Social para el Desarrollo del Espacio Rural Vasco» suscrito unánimemente por todos los agentes económicos y sociales implicados, públicos y privados, declara e integra las voluntades precisas para profundizar en la articulación interna de Euskadi y reforzar su vertebración territorial, mediante una ambiciosa y renovada apuesta que propicie la competitividad general de sus áreas rurales.

A tal efecto, debe garantizarse una visión omnicomprensiva del medio rural, de su problemática y de su funcionalidad, a la vez que se debe desarrollar una discriminación positiva de carácter general que permita ponderar la utilización de criterios de naturaleza económica o de umbrales mínimos de población para la provisión de los equipamientos básicos. Para

ren ahalegina behar dela, zeren, azken finean, gizarte osoak jasoko baitu ahalegin horren emaitza.

Eta Euskadi bereziki egokia da gizarteak landa ingururako nahi duen garapen integrala gauzatzeko, azalera geografiko txikia eta batez besteko biztanle dentsitate handia baitu, eta, oro har, garapen ekonomikoaren maila ona baita bertan. Horrez gain, landa eta hiri inguruneen arteko inbrikazio handia dago gure landa eremu batzuetan, eta egoera horrek, zenbait eragozpen sortzen dituen arren, oso alde onak ditu.

Eusko Jaurlaritzak onetsi eta Eusko Legebiltzarrak berretsi zuen «1997-2000 Euskal Landa Ingurunea Garatzeko Jarduera Planak» jardun eremu orokorra zehazten du, eta, hortaz, funtsezko tresna da lehen aipaturiko ituna sinatzean azaldutako borondateak gauzatzeko eta borondate horiek eraginkor bilakatzeko.

Plan horren barruan beren-beregi jasotzen da Landa Ingurunearen Garapenerako Legea, eta politika berriaren oinarrizko osagarritzat hartzen da. Era berean, landa ingurunearen garapenerako kontseilua aipatzen da, eta adierazten da haren baitan erakundeen arteko lankidetza eta elkarlana gauzatu behar direla, kontseilu hori funtsezko elementua izango dela landa garapenerako politikaren diseinu eta plangintza egiteko prozesuan.

Lege honek erantzun egokia eman nahi dio zenbait tresna artikulatu beharrari, tresna horiek —behar adinako malgutasunaz horniturik— aukera eman dezaten politika sektorialak era koordinatuan ezartzeko landa ingurunearen errealitatean, hau da, alderdi ekonomiko edo produktibo soilak gainditzen dituen errealitate batean. Aldi berean, erabakiak hartzeko eta landa ingurunearen aldeko programa estrategikoak egiteko koordinazioa indartuko du lege honek, eta bere aplikazioa ahalik eta gehien hurbilduko da landa inguruneko biztanleen arazoetara.

Adierazi behar da, bestalde, hori guztia Europako Batasunak landa inguruen garapenerako eratu duen politika irmo eta zabalaren baitan kokatu behar dela, eta hainbat tresna juridiko eta finantzario dagoela bera gauzatzeko.

Legearen lehenengo idazpuruan, legearen xedea eta landa ingurunearen garapenerako politikaren helburu orokorrak eta sektorialak finkatzen dira.

Bigarren idazpuruan helburuak lortzeko oinarrizko tresnetariko bat arautzen da, landa ingurunearen garapenerako programak, alegia, programa horiek aukera ematen baitute herri administrazioek batera esku har dezaten, hala landa ingurunearen garapenari berari dagokionean nola administrazio jardunaren

ello, es evidente que se precisa del esfuerzo del conjunto de la sociedad vasca, de cuyos resultados positivos también se verá beneficiada.

El desarrollo integral del espacio rural deseado por la sociedad es posible especialmente en un país como Euskadi, de limitada extensión geográfica y elevada densidad media de población, que cuenta con un nivel significativo de desarrollo económico general. Además, se produce una fuerte imbricación de los espacios rural y urbano en algunas de nuestras zonas rurales, lo que genera algunos inconvenientes pero a la vez presenta aspectos positivos.

El Plan de actuación para el Desarrollo del Medio Rural Vasco 1997/2000, aprobado por el Gobierno Vasco y ratificado por el Parlamento de Euskadi, define el marco general de actuación a tales efectos y constituye, por tanto, la herramienta fundamental para materializar y hacer operativas las voluntades manifestadas con motivo de la rúbrica unánime del pacto antes citado.

Dentro de dicho plan se contempla expresamente la ley de Desarrollo Rural como pieza básica de esta nueva política, con inclusión de un consejo de desarrollo rural en cuyo seno ha de producirse la cooperación y la colaboración interinstitucional, configurándose así como un elemento clave en el proceso de diseño y planificación de la política de desarrollo rural.

La presente ley intenta dar satisfacción a la necesidad de articular los instrumentos que, dotados de la necesaria flexibilidad, permitan la proyección coordinada de las políticas sectoriales sobre una realidad que, como la del medio rural, trasciende de los aspectos puramente económicos o productivos. A la vez reforzará la coordinación para la toma de decisiones y la programación estratégica en favor del medio rural, acercando su aplicación a los niveles más próximos a los problemas de la población rural.

Hay que señalar que todo ello se inscribe en la política decidida y dilatada de la Unión Europea en favor del desarrollo de las zonas rurales, que cuenta con diversos instrumentos jurídicos y financieros para su materialización.

En el Título Primero de la ley se establece el objeto de la misma, así como los objetivos generales y sectoriales de la política de desarrollo rural.

El Título Segundo regula uno de los instrumentos básicos para su consecución: los Programas de Desarrollo Rural, que van a permitir una actuación conjunta de las diferentes intervenciones de las Administraciones públicas, tanto las referidas de manera específica al desarrollo rural como aquellas otras, corres-

edozein esparrurekin erlazionaturik dagoen eta landa ingurunearen garapenerako programetan ezarritako helburuak lortzeko eragina duen guztian.

Halaber, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei, lurralde historikoetako foru erakundeei eta udalerriei esleitu beharreko eginkizunen banaketa jasotzen da landa ingurunearen garapenari dagokionez, betiere herri administrazioen arteko harremanak orokorki antolatzen dituzten arauetan ezarritako banaketa errespetatzen delarik.

Hirugarren idazpuruan, bestetik, administrazioen lankidetza eta elkarlana aztertzen da bi ikuspuntutatik: batetik, politika sektorialak aplikatzerakoan disfuntzioak eragoztera zuzendutako aurreikuspenak biltzen dira, eta, bestetik, Landaberri sortzen da, landa ingurunearen garapenari dagokion guztian erakundeen arteko lankidetza eta elkarlanerako organo izan dadin, landa ingurunean eragina duten politikak aztertu eta eztabaidatzeko gune naturala izan dadin, bertan erakundeek ordezkaritza egokia dutelarik, hau da, egoera politiko-administratiboa behar bezala islatuta dagoelarik.

Halaber, Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoa sortzen dira, landa ingurunearen garapenari dagokion guztian erakundeen arteko lankidetza eta elkarlanerako organoak izan daitezen, zein bere lurralde historikoan, alegia.

Azkenez, landa ingurunearen garapenerako elkarteak sortzen dira, landa ingurunearen garapenerako jarduketetan agente ekonomiko eta sozialek parte hartu eta laguntzeko tresna izan daitezen.

LEHENENGO IDAZPURUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.–* Legearen xedea.

Hona hemen legearen xedea:

a) Landa ingurunearen garapenaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen jarduna gidatu behar duten helburuak definitzea.

b) Landa eremuen garapenera bereziki orientatzen diren politikak garatzeko arau markoa ezartzea.

c) Gainerako politika eta jarduketa administratiboak lege honetan landa ingurunearen garapenerako ezartzen diren helburuak lortzeari egokitzeko tresnak zehaztea.

Lege honi dagokionez, hau da landa ingurunearen garapena: Euskal Autonomia Erkidegoan landa inguruko erkidegoak mantendu eta indartzera zuzentzen

pondientes a los diversos sectores de la actividad administrativa, que tengan incidencia en la consecución de los objetivos de desarrollo rural establecidos en estos programas.

Asimismo, se contempla la distribución de funciones entre las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, los órganos forales de sus territorios históricos y los municipios, en relación con el desarrollo rural, desde el respeto a la delimitación de funciones establecida por las normas que, con carácter general, regulan las relaciones entre tales Administraciones públicas.

El Título Tercero, por su parte, aborda la cuestión de la colaboración y cooperación administrativas, desde un doble punto de vista: de un lado recoge previsiones tendentes a evitar que se produzcan disfunciones a la hora de la aplicación de las políticas sectoriales -por definición atribuidas a la competencia de distintos órganos-, y, de otro, crea Landaberri como un órgano de coordinación y colaboración interinstitucional en materia de desarrollo rural, con una representación institucional omnicomprensiva de la realidad político-administrativa, erigiéndose en el foro natural de encuentro y discusión de las políticas con incidencia en el medio rural.

Asimismo, crea Landaraba, Landabizkaia y Landagipuzkoa, con el carácter de órganos de coordinación y colaboración interinstitucional en materia de desarrollo rural en los diferentes territorios históricos de la Comunidad Autónoma.

Por último, se establecen las Asociaciones de Desarrollo Rural, como instrumento de participación y colaboración de los agentes económicos y sociales en las actuaciones de desarrollo rural.

TÍTULO PRIMERO
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto de la ley.

El objeto de la presente ley es:

a) La definición de los objetivos que deben orientar las actuaciones de las Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de desarrollo rural.

b) El establecimiento del marco normativo en el que han de desarrollarse las políticas orientadas de manera específica al desarrollo de las zonas rurales.

c) La determinación de los instrumentos que permitan adecuar el resto de políticas y actuaciones administrativas con la consecución de los objetivos del desarrollo rural que se establecen en la presente ley.

A efectos de la presente ley, se entiende por desarrollo rural el proceso dirigido a mantener y consolidar las comunidades rurales, que fomente la conser-

den prozesua, bertako kultura eta bizimodu propioen artapena bultzatzen duena, biztanleen bizi kalitatea hobetzera jotzen duena. Landa inguruko biztanleek, prozesu horren onuradun nagusiak diren aldetik, biziki parte hartuko dute, inplikaturiko gainerako agente publiko zein pribatuekin batera, gauzatu nahi duten garapen motaren definizio eta lorpenean. Prozesu horrek, halaber, garapen endogenoa bultzatu behar du, baita landa inguruko bizilagunen eta gainerakoen arteko integrazio eta elkarreraginerako lagungarri izan ere, eta landa inguruko erkidegoen zuzperketa ekonomiko eta soziala lortzeko hartzen diren neurri guztiek paisajearen, naturaren eta ingurugiroaren artapenerako bermea izan behar dute.

*2. atala.–* Euskal Autonomia Erkidegoko landa ingurunea garatzeko politikaren helburu orokorrak.

Landa ingurunearen garapenerako politikak ondoko helburu orokor hauek izango ditu:

a) Euskadiko nekazaritzaren eta landa ingurune osoaren funtzioaniztasuna eta iraunkortasuna bermatu eta sustatzea ekonomi, gizarte, ingurugiro eta kultur alderdietan, nola eta Euskadiko nekazaritzaren egoera eta ezaugarrietara egokitutako eredua disenatuz, landa eremuak despopulatu eta lagatzeko prozesuak eragotziz, eta landa eta hiri inguruen arteko elkarreragina diskriminazio positiboaren bitartez bultzatuz.

b) Landa ingurunearen berezko ezaugarri nagusiei eustea, landa ingurunea nekazaritzako elikagaien sektoreko produkzio eta eraldakuntzaren inguruan egituratzea, hori guztia oinarri ekonomikoa dibertsifikatzearekin bateragarri eginez.

c) Nekazaritzak lehiatzeko duen gaitasunaren hobekuntza sustatzea, ingurune fisikoaren ezugarriak eta nekazariek betetzen duten funtzio sozial garrantzitsua kontutan harturik, familia ustiategia oinarritzat harturik, asoziazionismo eta kooperatibismoaren bidez artikulaturik, betiere merkatuari -euskal kontsumitzaileei kalitatezko elikagaien bidez on eginez-, ingurugiroa babesteari eta nekazaritzako elikagaien kalitatea eusteari begira.

d) Landa inguruetako enpresen eta ekonomi egituren lehiakortasuna areagotzea, arreta berezia jarriz nekazaritzako elikagaien enpresetan, nekazalturismokoetan, landa turismokoetan, nekazaritza ekologikokoetan eta landa ingurunean garapen endogenoko proiektuei ekiten dien beste edozein enpresatan, horiek merkatuaren eta lehiaren joeretara egokitzea bultzatuz, prozesu hori landa inguruak betetzen dituen mota guztietako funtzio eta zerbitzuekin uztartuz. Horren guztiaren helburu nagusia izango da enplegua mantendu eta sortzea landa inguruko biztanleen onerako.

e) Landa ingurunearen garapenean eragina duten administrazio eta herri erakundeen arau eta jarduke-

vación de la cultura y formas de vida que les son propias y mejore la calidad de vida de sus habitantes. Éstos, como principales beneficiarios del mismo, participarán de forma activa, junto a los demás agentes públicos y privados implicados, en la definición y consecución del tipo de desarrollo del que desean formar parte, que favorezca tanto el desarrollo endógeno como la integración e interacción entre la población rural y el resto de la sociedad, siendo las medidas que se pongan en marcha para lograr su revitalización económica y social garantes de la conservación del paisaje, la naturaleza y el medio ambiente.

*Artículo 2.–* Objetivos generales de la política de desarrollo rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco

La política de desarrollo rural tenderá a la consecución de los siguientes objetivos generales:

a) Garantizar y fomentar la multifuncionalidad y la sostenibilidad de la agricultura vasca y del conjunto de su medio rural en su vertiente económica, social, ambiental y cultural, diseñando un modelo adaptado a la realidad y características de la agricultura vasca, frenando los procesos de despoblamiento y abandono, así como propiciando la interacción del mundo rural y el urbano, mediante actuaciones de discriminación positiva.

b) Preservar las señas de identidad fundamentales del medio rural, así como su vertebración futura en torno a la producción y transformación del sector agroalimentario, compatibilizándose con la diversificación de su base económica.

c) Promover la mejora de la capacidad competitiva de la agricultura, teniendo en cuenta las características del medio físico y la importante función social que desarrollan los agricultores, basada en un modelo de explotación familiar, articulada a través del asociacionismo y el cooperativismo y orientada hacia el mercado beneficiando a los consumidores vascos con productos alimentarios de calidad, la protección del medio ambiente y la calidad agroalimentaria.

d) Incrementar la competitividad de las empresas y estructuras económicas de las zonas rurales, con especial atención a las empresas agroalimentarias, de agroturismo, de turismo rural, de agricultura ecológica y cualesquiera otras que acometan proyectos de desarrollo endógeno en el medio rural, impulsando su adaptación a las tendencias del mercado y la competencia, compaginando este proceso con las funciones y servicios de todo tipo que desempeña el medio rural. Todo ello tendrá como objetivo primordial el mantenimiento y la creación de empleo en beneficio de los habitantes del medio rural.

e) Integrar las normas y actuaciones de las diferentes Administraciones y entidades públicas que afec-

tak integratzea, disfuntzioak eta koordinazio falta eragozteko, eta tresnen koherentzia hobea, esku-hartzeen eraginkortasun handiagoa eta landa eta hiri inguruen arteko elkarreragina bultzatzea.

f) Landa eremuen garapenaren protagonismoari eustea, bai biztanlerian, bai bertako erakundeetan; asoziazionismoa bultzatzea, eta emakumeek eta gazteek prozesu ekonomiko eta sozialetan parte hartzeko erraztasunak ematea.

g) Landa inguruetako natur, histori, kultur eta hizkuntz ondarea berreskuratu, artatu, garatu eta zabaltzea.

h) Lurraldearen antolamendua hobetzea, espazioaren erabilera arrazoizkoago eta orekatuagoa bultzatuz.

i) Landa ingurunearen balioak aintzat hartzen dituen eta landa ingurunearen garapenerako neurri egokiak ezartzeko bidea ematen duen kultura soziala bultzatzea.

*3. atala.–* Euskal Autonomia Erkidegoko landa ingurunea garatzeko politikaren helburu sektorialak.

I. eranskineko lurralde eremuak edota 5.1 atalean ezarritakoaren arabera eratzen direnak —osorik edo zati batez— barne hartzen dituzten landa zonaldeetan eraginik izanez gero, erakunde eta entitate eskudunek beren jarduna egokitu beharko dute, eta atal honetan ezartzen diren helburu berezi edo sektorialak lortzera bideratu. Hala, helburu horien garapen eta burutzapena bat etorriko da landa ingurunearen garapenerako politikarekin, elkarren arteko koordinazio eta koherentzia mantentzen delarik. Edonola ere, landa garapenerako politika aipaturiko helburuen menpean egongo da. Hona hemen helburu berezi edo sektorialak:

1.– Lurralde antolamenduaren arloan:

a) Lurraldearen eta hirigintzaren antolamendurako tresnak landa zonaldeen ezaugarri eta beharrizanen arabera ezartzea, harmoniaz uztar daitezen, batetik, natur baliabideak antolatu eta artatzeko premiak eta nekazaritza eta basogintzaren ikuspegitik balio handia duten lurren babesa eta, bestetik, jarduera ekonomikoen mantenimendu eta garapena eta landa herriguneak behar beste zerbitzuz hornitu beharra.

b) Arreta berezia jartzea landa zonaldeak eta bertako biztanleria beharrezko zerbitzu eta azpiegiturez hornitzen eta alde horietako ekonomiaren dibertsifikatze eta garatze jasangarrian, eta behar bezala haztatzea zein neurritan eratxiki behar zaizkien landa zonaldeei hiri ingurunean sortzen diren eta hiri ingurunearen beharrizanen asegarri diren funtzioak, landa garapenerako politikaren helburuekin bateragarri egin behar dituzten mugen barruan.

ten al desarrollo de las zonas rurales, evitando disfuncionalidades y descoordinación, a la vez que propiciando una mejor coherencia de los instrumentos, una mayor eficacia de las intervenciones y la interacción del entorno rural y urbano.

f) Mantener el protagonismo del desarrollo de las zonas rurales en su población y en las entidades de las propias zonas, potenciando el asociacionismo, así como la participación e incorporación de las mujeres y los jóvenes a los procesos económicos y sociales.

g) Recuperar, conservar, desarrollar y divulgar el patrimonio natural, histórico, cultural y lingüístico de las zonas rurales.

h) Mejorar la ordenación del territorio, favoreciendo una ocupación más racional, equilibrada e interrelacionada del espacio.

i) Favorecer una cultura social que perciba los valores del medio rural y propicie el establecimiento de las medidas adecuadas para su desarrollo.

*Artículo 3.–* Objetivos sectoriales de la política de desarrollo rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las instituciones y entidades competentes adecuarán su actuación con proyección en las zonas rurales que comprendan, en todo o parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1, a la consecución de, entre otros, los objetivos específicos o sectoriales establecidos en el presente artículo, correspondiéndoles su desarrollo y ejecución de manera coordinada y coherente con la política de desarrollo rural, sin perjuicio del sometimiento de ésta a los mismos objetivos sectoriales. Tales objetivos específicos o sectoriales son los siguientes:

1.– En materia de ordenación del territorio:

a) Establecer los instrumentos de ordenación del territorio y urbanísticos con arreglo a las características y necesidades de las zonas rurales, de manera que se conjuguen, de forma armonizada, las exigencias de ordenación y conservación de los recursos naturales y la protección del suelo de alto valor agrológico y forestal con el mantenimiento y desarrollo de las actividades económicas y la dotación adecuada de servicios a las poblaciones rurales.

b) Prestar especial atención a las necesidades específicas de dotación de servicios e infraestructuras y a la diversificación y desarrollo económico sostenible de las zonas rurales y su población, ponderando de manera adecuada la atribución a las zonas rurales de funciones originadas en el medio urbano y destinadas a satisfacer las necesidades de éste, dentro de los límites que las hagan compatibles con los objetivos de la política de desarrollo rural.

c) Landa inguruneak nekazaritza, basogintza eta natur arloetan dituen balioak babestea.

2.– Nekazaritza eta basogintza arloan:

a) Mendiei buruzko foru arauen esparruan, nekazaritza eta basogintzaren zeregina bultzatzea, landa ingurunearen ekonomiaren oinarria izan dadin, eta funtsezko faktorea izan dadin gutxiegi erabilitako lurrak eta natur baliabideak hobeto aprobetxatzeko, artatzeko eta agenteen partaidetzaz antolatzeko, eta lurraldea behar bezala artikulatzeko.

b) Sektoreko enpresen lehiakortasuna hobetzea, nola eta produktuak kalitateagatik bereiztea sustatuz eta ekoizkortasuna eta ekoizpen kostuak hobetzeko sustapen komertziala bultzatuz, arreta berezia jarriz garapen endogenoko jarduketetan eta hurbileneko merkatuetako sustapenean.

c) Gazteak nekazaritzan aritzea errazteko baldintzak sortzea, belaunaldi aldaketa gauzatzeko eta enplegua sortzeko bidea emanez.

d) Transferentzia teknologikoa, teknika eta enpresa arloko prestakuntza, informazioko teknologia berrien erabilera eta ezagutza lehiakortasunerako faktoretzat hartu eta hobetzea.

e) Euskal nekazaritzako elikagaigintzan kooperatibismoa bultzatzea, sektorearen artikulazioa agenteen parte-hartzetik abia dadin lagunduz.

f) Sektoreen arteko lankidetza eta nekazaritzako elikagaien industriaren garapena bultzatzea, eta, modu horretara, nekazaritza eta elikagaigintza egituratzea, nekazaritza merkatuetara hurbil dadin eta ahalik eta handiena izan dadin haren balio erantsia, hurbileneko merkatuak bereziki kontuan izanez.

3.– Landa inguruneko ekonomi ehuna dibertsifikatzeari eta enplegua sortzeari dagokionez:

a) Enplegu sorkuntza eta landa inguruneko aukera berdintasuna sustatzea eta bultzatzea.

b) Industri lurzorua eta haren oinarrizko azpiegiturak era ordenatuan eta zentzuz garatzen eta okupatzen laguntzea, betiere landa ingurunearen ezaugarri bereziak errespetatu eta zaintzen direlarik, eta ekonomia dibertsifikatu eta dinamizatu beharrari erantzuten zaiolarik, arreta berezia jarriz garapen endogenoko ekimenak bultzatzen dituzten nekazaritzako elikagaien industriaren proiektuetan.

c) Industri enpresa txiki eta ertainak ezartzeko erraztasunak ematea, arreta berezia jarriz garapen endogenoko proiektuak sustatzen dituzten lurraldeko produktuen eraldakuntzarako enpresetan, baita zerbitzu enpresetan ere, nekazaritza tradizionaleko ekoizpenari balio erantsirik handiena ematen diotenei lehentasuna emanez.

d) Lana informazioaren teknologia berrietan oinarriturik antolatzeko eredu berrien garapena bultza-

c) Proteger los valores agrarios, forestales y naturales del medio rural.

2.– En materia de agricultura y silvicultura:

a) Impulsar el papel de la agricultura y la silvicultura, en el marco de las normas forales de montes, como base de la economía del medio rural y factor esencial para la ordenación participativa, conservación y optimización del aprovechamiento de tierras infrautilizadas y de los recursos naturales, y una adecuada articulación territorial.

b) Mejorar la capacidad competitiva de las empresas del sector, estimulando la diferenciación de los productos por la calidad y una promoción comercial que optimice su productividad y los costes de producción, con especial atención a las actuaciones de desarrollo endógeno y a la promoción en los mercados más próximos.

c) Crear las condiciones precisas para favorecer la incorporación de jóvenes a la agricultura propiciando el recambio generacional y la creación de empleo.

d) Optimizar la transferencia tecnológica, la formación técnico-empresarial, la utilización de las nuevas tecnologías de la información y el conocimiento como factores de competitividad.

e) Fomentar el cooperativismo en el sector agroalimentario vasco, favoreciendo la articulación sectorial desde unas bases participativas.

f) Vertebrar el conjunto del sector agroalimentario impulsando la colaboración intersectorial y el desarrollo de la industria agroalimentaria, con el fin de aproximar la agricultura a los mercados y maximizar su valor añadido, teniendo especialmente presentes los mercados más próximos.

3.– En materia de diversificación del tejido económico del espacio rural y la creación de empleo:

a) Promover y apoyar la creación de empleo y la igualdad de oportunidades de la población rural.

b) Promover el desarrollo y ocupación de suelo industrial y de sus infraestructuras básicas de forma ordenada y racional, respetando y preservando las características específicas del medio rural y dando respuesta a sus necesidades de diversificación y dinamización económica, con especial atención a los proyectos de la industria agroalimentaria que impulsen iniciativas de desarrollo endógeno.

c) Propiciar la instalación de pequeñas y medianas empresas industriales, con especial atención a las empresas de transformación de los productos del territorio que promuevan proyectos de desarrollo endógeno, así como de servicios, dando prioridad a aquellas que proporcionen un mayor valor añadido a la producción agraria tradicional.

d) Apoyar el desarrollo de nuevos modelos de organización del trabajo en base a las nuevas tecnolo-

tzea, landa inguruneko enpleguaren lan baldintzak eta bizi kalitatea hobetzeko aukera egon dadin.

4.– Hezkuntza eta kultur arloan:

a) Hezkuntzako eskaintza landa inguruneko biztanleriarengana behar bezala iristeko modua bermatzea, biztanleria horren berezitasunak kontutan hartzen dituzten irizpide eta baremoekin, hezkuntzako eskaintza landa ingurunera gero eta hurbilagotzen ahaleginduz, batez ere herrigunerik apartatu eta txikienentzako derrigorrezko hezkuntzari dagokionez.

b) Hezkuntzaren kalitatea hobetzea. Horretarako, euskal landa ingurunearen berezitasunekin bat datozen hezkuntza eredu, teknika eta jaraibide berritzaileak garatu behar dira, landa inguruneko biztanleriari bere ingurua ezagutu eta baloratzeko aukera ematen dioten kurrikulumak diseinatu behar dira, eta zonalde horietako emakume eta gazteen prestakuntza eta trebakuntza lehentasunez bultzatu behar dira.

c) Landa zonaldeetako biztanleen lanbide heziketa eta heziketa okupazionala egokitzea zonalde bakoitzak lanesku kualifikatua lortzeko dituen beharrizan berezien arabera, lanesku hori beharrezkoa baita enpresa berriak irekitzeko, aktiboken erreziklapena bultzatzeko eta teknologia zein ekoizpen modu berriak erabiltzeko.

d) Hezkuntza, kultur eta kirol ekipamenduen artikulazio orokorra erraztea, ekipamenduon balioaniztasuna eta funtzioaniztasuna sustatuz, eta egun dauden desorekak zuzenduz.

e) Landa inguruneko kulturaren ezagutza, zabalkundea eta balorazioa sustatzea.

5.– Osasun arloan:

a) Osasun arloko eskaintza lurraldeko herrigunerik apartatu eta txikienetako biztanleengana hurbiltzea, gero eta hurbilagotzea.

b) Ordenazio Farmazeutikorako Legearen markoan, landa ingurunearen premia bereziei erantzuteko berariaz diseinatutako eskaintza farmazeutikoa sustatzea.

6.– Etxebizitza arloan:

Landa ingurunearen berezitasun eta aukeren araberako etxebizitza politika garatzea, kalitate onekoa eta dentsitate txikikoa, alegia, landa ingurunea ohiko bizilekutarako erakargarri bilakatzeko, espekulazioa eragozteko eta landa inguruneko gazteei etxebizitza lortzeko modua errazteko.

7.– Azpiegitura arloan:

a) Landa inguruneko biztanleek lana, zerbitzuak, heziketa, aisia, gizarte harremanak eta kontsumoa eskuratzeko dauzkaten aukerak hobetzea, hartarako beharrezko diren azpiegitura guztiak behar bezala garatuz.

gías de la información que posibiliten la mejora de las condiciones laborales y la calidad de vida del empleo rural.

4.– En materia educativa y cultural:

a) Garantizar el acceso adecuado a la población rural de la oferta educativa, con criterios y baremos que tengan en cuenta sus especificidades, procurando una aproximación progresiva de la misma al medio rural, en especial en lo relativo a la enseñanza obligatoria para los núcleos de población más alejados y de menor tamaño.

b) Mejorar la calidad de la enseñanza, desarrollando modelos, técnicas y pautas educativas innovadoras que se adecuen a las peculiaridades del medio rural vasco, favorezcan el conocimiento y valoración de ese medio por parte de la población de las zonas rurales, e impulsen la formación y capacitación prioritaria de las mujeres y los jóvenes de tales zonas.

c) Adecuar la formación profesional y ocupacional de los habitantes de las zonas rurales a las necesidades específicas de cada una de ellas para obtener mano de obra cualificada necesaria para la apertura de nuevas empresas, potenciar el reciclaje de los activos e introducir nuevas tecnologías y métodos de producción.

d) Favorecer la articulación global de los equipamientos educativos, culturales y deportivos, promoviendo su polivalencia y multifuncionalidad y corrigiendo los desequilibrios existentes.

e) Promover el conocimiento, difusión y valorización de la cultura rural.

5.– En materia sanitaria:

a) Promover una oferta sanitaria que acerque progresivamente los recursos sanitarios a la población de los núcleos rurales más alejados y de menor tamaño.

b) Promover, en el marco de la ley de Ordenación Farmacéutica, una oferta farmacéutica específicamente diseñada para responder a las necesidades de la población rural.

6.– En materia de vivienda:

Desarrollar una política de vivienda adaptada a las peculiaridades y oportunidades del medio rural, de calidad y baja densidad, que lo haga atractivo como lugar de residencia habitual, evite la especulación y favorezca el acceso de los jóvenes del medio rural a la vivienda.

7.– En materia de infraestructuras:

a) Mejorar los posibilidades de acceso de la población rural al trabajo, los servicios, la formación, el ocio, las relaciones sociales y el consumo, mediante el desarrollo adecuado de todas aquellas infraestructuras necesarias para ello.

b) Oinarrizko azpiegiturak presaz eta lehentasuna emanez garatzea, hala nola garraio, elektrifikazio, urhorniketa, saneamendu, gas, telefonia eta ureztatze arlokoak, azken hauek nekazaritza sektorearentzat funtsezkoak baitira. Era berean, arreta berezia jarriko da landa zonaldeetako jarduera ekonomikoak eta zerbitzuak garatzeko aukera onak eman ditzaketen telekomunikazio azpiegituretan.

c) Aurreko guztiak behar den lehentasuna izango du lurralde bakoitzean, eta erakunde eskudunen babesa beharrezkoa izango da herritar guztiek zerbitzuei buruzkoan dituzten aukera-berdintasunerako eskubide guztiak bermatu ahal izateko.

8.– Ingurugiro arloan:

a) Landa ingurunearen garapen jasangarria bultzatzea, oraingo beharrizanei erantzunez, baina etorkizuneko belaunaldiei beharrizanak asebetetzeko ahalmena eragotzi gabe.

b) Ingurugiroa babestea, narriadurari aurrea hartzea eta kaltetuak izan diren aldeak lehengoratzea.

c) Bioaniztasuna babestea. Arreta berezia jarriko da agroaniztasunean eta euskal espezie eta arrazak artatu eta berreskuratzen; horretarako, jatorrizko ekosistemetako material genetikoa erabiliko da.

9.– Turismo arloan:

a) Landa turismoa bultzatzea. Horretarako, hainbat sustapen ekintza burutuko dira —landa zonaldeetan eta natur ingurunean aisiako jarduerak egiteko gero eta handiagoa den eskariari begira—, eta landa ingurunea helmuga turistiko berezia bilakatuko da. Nekazalturismoa nekazaritzako ustiategien osagarri gisa bultzatzea.

b) Landa turismoaren garapena antolatzea, nola eta masifikazioa saihestuz, jarduera tradizionalekiko eta natur ingurunearekiko orekari eutsiz, arauak landa ingurunearen egoera, aukera eta beharrizan turistikoetara egokituz, ekimen endogenoetan eta nekazalturismoan arreta berezia jarrita.

## BIGARREN IDAZPURUA
## LANDA INGURUNEAREN GARAPENERAKO PROGRAMAK

*4. atala.–* Landa ingurunearen garapenerako programak.

1.– Bereziki Euskal Herriko landa ingurunea garatzera orientatzen diren politikek landa ingurunearen garapenerako programen forma hartuko dute.

2.– Landa ingurunearen garapenerako programek ondoko hauek hartuko dituzte beren baitan:

b) Desarrollar de manera urgente y prioritaria las infraestructuras básicas, tales como las de transporte, electrificación, abastecimiento de aguas, saneamiento, gas, telefonía y regadío, estas últimas vitales para el sector agrario. Asimismo, se prestará especial atención a las infraestructuras de telecomunicaciones que puedan reportar importantes posibilidades para las actividades económicas y los servicios en las zonas rurales.

c) Todo lo que antecede tendrá el carácter prioritario preciso en cada territorio, bajo la tutela de las instituciones competentes para lograr garantizar todos los derechos de los ciudadanos a la igualdad de oportunidades en cuanto a los servicios.

8.– En materia de medio ambiente:

a) Propiciar el desarrollo sostenible del medio rural, de manera que satisfaga las necesidades del presente sin poner en peligro la capacidad de las generaciones futuras para satisfacer sus propias necesidades.

b) Proteger el medio ambiente, prevenir su deterioro y restaurarlo donde haya sido dañado.

c) Proteger la biodiversidad, con especial atención a la agrodiversidad, la conservación y recuperación de especies y razas autóctonas, empleando para ello material genético procedente de los ecosistemas originarios.

9.– En materia de turismo:

a) Fomentar el turismo rural con acciones de promoción dirigidas a la creciente demanda de actividades de ocio en las zonas rurales y el medio natural, configurándolo como un destino turístico singular. Promover el agroturismo como actividad complementaria de las explotaciones agrarias.

b) Ordenar el desarrollo del turismo rural evitando la masificación, manteniendo el equilibrio con las actividades tradicionales y el medio natural, adecuando la normativa a la realidad, oportunidades y necesidades del medio rural en materia turística, con especial atención a las iniciativas endógenas y el agroturismo.

## TÍTULO SEGUNDO
## PROGRAMAS DE DESARROLLO RURAL

*Artículo 4.–* Los Programas de Desarrollo Rural.

1.– Las políticas orientadas de manera específica al desarrollo de las zonas rurales del País Vasco adoptarán la forma de Programas de Desarrollo Rural.

2.– Los Programas de Desarrollo Rural comprenderán:

a) Aplikaziorako lurralde eremuaren muga argi eta zehatzak, baita programaren indarraldiarenak ere.

b) Aipaturiko lurralde eremuaren garapen sozioekonomikoan sumatutako arazoen deskripzioa, eta lurralde horretan dauden eta aipaturiko arazoen iturburu izan daitezkeen ments eta beharrizanen diagnostikoa.

c) Jarduera arlo bakoitzean edo Administrazioaren jardun eremu bakoitzean lortu beharreko helburuen zehaztapena, sumatutako beharrizanak asebetetzeko eta mentsak osatzeko.

d) Helburu zehatzak lortzeko beharrezkoak diren ekintzen programazioa, landa ingurunean aplikatu behar diren politika eta jarduketa-plan sektorialen barruan bildu diren zehaztapenen arabera.

e) Programatutako ekintzak finantzatzeko aurreikuspenak.

f) Ebaluazio sistema ezartzea, zertarako eta jakin ahal izateko zein neurritan asebete eta osatzen diren helburu zehatzak finkatzeko oinarri izan diren beharrizanak eta mentsak.

3.– Landa ingurunearen garapenerako programak Eusko Jaurlaritzaren dekretuz eta foru dekretuen bidez onetsiko dira, lege honen 6. atalean ezarritakoaren arabera.

*5. atala.*– Landa ingurunearen garapenerako programen lurralde eta eginkizun eremua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko landa ingurunea osatzen duen lurralde osoan ezarriko dira landa ingurunearen garapenerako programak. Horien zehaztapena ondoko irizpide hauen arabera egingo da:

a) biztanle dentsitate txikia, Euskal Autonomia Erkidegoko beste zonalde batzuekin alderaturik;

b) biztanleak galtzeko joera nabarmena;

c) nekazaritzako enplegu maila altua izatea, enplegu osoarekin alderaturik;

d) zonaldearen sentikortasuna nekazaritzaren bilakaerarekiko, batez ere Nekazaritzako Politika Komunaren markoan;

e) mendi zonalde edo alde behartsuren baten barruan egotea, 75/268/EEE Zuzentarauaren 3. atalean xedatutakoaren arabera hala sailkaturik, eta

f) ingurugiroarekiko zonalde sentikorra izatea, eta haren barruan naturaren, kulturaren eta paisajearen ikuspegitik balio handikoak diren elementuak egotea.

2.– Landa ingurunearen garapenerako programetan jarduera hauek jorratuko dira, besteak beste:

a) Una delimitación clara de su ámbito territorial de aplicación así como del periodo de tiempo durante el cual el programa estará en vigor.

b) Una descripción de los problemas detectados en el desarrollo socioeconómico de dicho ámbito territorial, así como el correspondiente diagnóstico de las deficiencias y necesidades existentes en ese territorio que podrían estar causando tales problemas.

c) La determinación de los objetivos específicos a alcanzar, dentro de cada sector de actividad o área de actuación administrativa, a fin de satisfacer las necesidades y cubrir las deficiencias identificadas.

d) La programación de las actuaciones precisas para el logro de los objetivos específicos, atendiendo a las determinaciones incluidas en las políticas y planes de actuación sectoriales que sean de aplicación en el medio rural.

e) Las previsiones de financiación de las actuaciones programadas.

f) El establecimiento de un sistema de evaluación que permita conocer el grado de satisfacción de las necesidades y de cobertura de las deficiencias que han servido de base para determinar los objetivos específicos.

3.– Los Programas de Desarrollo Rural serán aprobados por decreto del Gobierno Vasco y decreto foral, conforme a lo establecido en el artículo 6 de la presente ley.

*Artículo 5.*– Ámbito territorial y funcional de los Programas de Desarrollo Rural

1.– Los Programas de Desarrollo Rural se proyectarán sobre todo el territorio que integra el medio rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Su determinación se realizará con arreglo a los siguientes criterios:

a) baja densidad de población en relación con otras zonas de la Comunidad Autónoma del País Vasco;

b) acusada tendencia al despoblamiento;

c) elevado índice de empleo agrario en relación con el empleo total;

d) sensibilidad de la zona a la evolución del sector agrario, en especial en el marco de la reforma de la Política Agraria Común;

e) pertenencia a zonas de montaña o desfavorecidas, clasificadas con arreglo al artículo 3 de la Directiva 75/268/CEE, y

f) sensibilidad medioambiental de la zona y presencia en la misma de elementos de valor natural, cultural y paisajístico.

2.– Los Programas de Desarrollo Rural abordarán, entre otras, las siguientes actuaciones:

a) Landa inguruetako ekonomi eta enpresa jardunaren sustapena eta dibertsifikazioa, nekazaritza-jarduera lehentasun gisa bultzatuz eta garapen endogenoko ekimenetan arreta berezia jarriz.

b) Landa zonaldeetako ingurugiroaren kudeaketa jasangarria, natur baliabideen antolamendua eta naturaren babes eta lehengoratzea.

c) Landa zonaldeetako azpiegituren garapen eta egokitzapena.

d) Landa zonaldeetako zerbitzuak Autonomia Erkidegoko gainerako zonaldeetakoekin parekatzea, hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan, gizarte zerbitzuetan, kultur azpiegituretan eta zerbitzuetan eta hizkuntz normalizazioan batez ere, landa ingurunearen ezaugarrietarako egokiak diren irizpide eta baremoekin.

*6. atala.–* Administrazioen eskumenak.

Lege hau ezartzea Administrazio autonomikoari eta foru eta udal administrazioei dagokie Autonomi Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko Harremanei buruzko 27/1983 Legearen esparruan. Hor ezarritakoaren arabera, eginkizun hauek dagozkie:

A) Eusko Jaurlaritzari:

a) Landa ingurunearen garapenerako programak egin eta onestea, bere eskumenaren eremuan.

b) Landa ingurunearen garapenerako programak betetzea, bere eskumenaren eremuan.

B) Foru aldundiei:

a) Landa ingurunearen garapenerako programak ezartzeko lurralde eremuak mugatzea, 5.1 atalean xedatutakoaren arabera.

b) Landa ingurunearen garapenerako programak egin eta onestea, bere eskumenaren eremuan.

c) Landa ingurunearen garapenerako programak betetzea, bere eskumenaren eremuan.

C) Landa ingurunearen garapenerako programek ukituriko udalei:

a) Bere udalerriko landa lurraldea helburu duten landa ingurunearen garapenerako programak egiten biziki parte hartzea.

b) Landa ingurunearen garapenerako programak betetzea, bere eskumenaren eremuan.

*7. atala.–* Landa ingurunearen garapenerako programak egiteko prozedura.

1.– Hala Eusko Jaurlaritzan nola kasuan kasuko foru aldundian nekazaritza eta landa garapenaren alorreko eskumenak dituzten sailek batera hartuko dute

a) Fomento de la actividad económica y empresarial de las áreas rurales y su diversificación, potenciando con carácter prioritario la actividad agraria y prestando especial atención a las iniciativas de desarrollo endógeno.

b) Gestión sostenible del medio ambiente de las zonas rurales, ordenación de los recursos naturales y protección y restauración de la naturaleza.

c) Desarrollo y adecuación de las infraestructuras de las zonas rurales.

d) Equiparación de los servicios de las áreas rurales con los del resto de zonas de la Comunidad Autónoma, especialmente en materia de educación, sanidad, vivienda, servicios sociales, infraestructuras y servicios culturales y normalización lingüística, con criterios y baremos adaptados a las características del medio rural.

*Artículo 6.–* Competencias administrativas.

La aplicación de esta ley corresponde a las Administraciones autonómica, foral y municipal en el marco de la Ley 27/1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos. Con arreglo a lo establecido en la misma les corresponden las siguientes funciones:

A) Al Gobierno Vasco:

a) Elaboración y aprobación de los Programas de Desarrollo Rural, en lo que se refiere a los ámbitos de su competencia.

b) Ejecución de los Programas de Desarrollo Rural, en lo que se refiere a los ámbitos de su competencia.

B) A las Diputaciones Forales:

a) Delimitación de ámbitos territoriales para la aplicación de los Programas de Desarrollo Rural, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 5.1.

b) Elaboración y aprobación de los Programas de Desarrollo Rural, en lo que se refiere a los ámbitos de su competencia.

c) Ejecución de los Programas de Desarrollo Rural, en lo que se refiere a los ámbitos de su competencia.

C) A los Ayuntamientos afectados por los Programas de Desarrollo Rural:

a) Participación activa en la elaboración de los Programas de Desarrollo Rural con proyección sobre el territorio rural de su término municipal.

b) Ejecución de los Programas de Desarrollo Rural en los ámbitos de su competencia.

*Artículo 7.–* Procedimiento de elaboración.

1.– La iniciativa para la elaboración de los Programas de Desarrollo Rural se adoptará de manera conjunta por los Departamentos del Gobierno Vasco y de

landa ingurunearen garapenerako programak egiteari ekiteko erabakia. Sail horiek, bi hilabeteko epearen barruan, behar duten informazio guztia bilduko dute gainerako administrazio, erakunde eta sailetatik, ukituriko zonaldearen lurralde eremuetarako jarduketa programei eta aurreikuspenei buruz. Epe hori hilabete luza dezakete programa egiteari ekitea erabaki duten Eusko Jaurlaritzako eta kasuan kasuko foru aldundiko sailek, programa egiteko behar den informazioa lortzeko beharrezkotzat jotzen badute, edota ukituriko administrazio, erakunde edo sailetariko baten batek eskabide arrazoitua egiten badu.

Horrez gain, harako zonaldearen barruan mendi nekazaritza eta landa garapenaren alorrean dauden elkarteetatik ere jasoko da informazioa, betiere lehen ezarritako epeen barruan.

2.– Programa egiteari ekitea erabaki duten Eusko Jaurlaritzako eta kasuan kasuko foru aldundiko sail eskudunak izango dira prozedura gidatzeko eta hasierako zein behin betiko proposamena egiteko, betiere haien eskumenaren eremuan.

3.– Programaren hasierako proposamena egin baino lehen, eta bildutako informazio eta aurreikuspenak administrazio, erakunde, sail eta elkarte egokiekin kontrastatu ondoren, programaren aurrerapena egingo da, aipaturiko informazioa jaso eta bi hilabeteko epearen barruan.

Epe hori, gehienez ere, hilabete luza dezakete prozeduraz arduratzen diren Eusko Jaurlaritzako eta kasuan kasuko foru aldundiko sailek, programaren aurrerapena behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen badute. Aurrerapen hori, gerora, programaren barruan bildutako jarduketen alorrean eskudunak diren administrazio, erakunde eta sailei igorriko zaie, egokitzat hartzen dituzten ohar, iradokizun, hautabide eta proposamenak azal ditzaten atal honen 1. idazatian ezarritako epeen barruan. Horrez gain, jendaurrean jarriko da, eta interesatutako pertsona zein erakundeek alegazioak azal ditzakete epe beraren barruan. Gero, prozeduraz arduratzen diren Eusko Jaurlaritzako eta kasuan kasuko foru aldundiko sailek programaren hasierako proposamena egingo dute epe berberaren barruan.

4.– Hasierako proposamena lege honen 10. eta 12. ataletan aurreikusitako txostenen pean jarriko da. Txostenak, bestetik, proposamena jaso eta bi hilabeteko epearen barruan eman behar dira. Epe hori hilabete luza daiteke gehienez, prozeduraz arduratzen di-

la Diputación Foral correspondiente competentes en materia de agricultura y desarrollo rural. Éstos recabarán del resto de Administraciones, organismos y Departamentos la información que se refiera a sus previsiones y programas de actuación relativos al ámbito territorial de la zona afectada en el plazo de dos meses. Dicho plazo podrá ampliarse hasta un máximo de otro mes por decisión de los Departamentos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral correspondiente que adoptan la iniciativa para la elaboración del programa cuando así lo consideren necesario para obtener la información necesaria para la elaboración del programa, o a solicitud razonada de alguna de las Administraciones, organismos y Departamentos implicados.

Asimismo, recabarán dicha información de las asociaciones de agricultura de montaña y de desarrollo rural de la zona en los plazos anteriormente establecidos.

2.– Los Departamentos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral correspondiente que adoptan la iniciativa para la elaboración del programa serán competentes para conducir el procedimiento y formular la propuesta inicial y definitiva en el ámbito de sus respectivas competencias.

3.– Antes de proceder a la propuesta inicial del programa, y previo contraste con las diferentes Administraciones, organismos, Departamentos y asociaciones correspondientes de la información y previsiones remitidas, se formulará un avance del programa en un plazo de dos meses a partir de la recepción de dicha información.

Dicho plazo podrá ampliarse hasta un plazo máximo de otro mes por los Departamentos del Gobierno Vasco y la Diputación Foral correspondiente encargados del procedimiento, cuando así lo consideren necesario para la correcta formulación del avance. El avance será remitido a las Administraciones, organismos y Departamentos competentes en materia de las actuaciones comprendidas en el programa a fin de que en los plazos establecidos en el apartado 1 del presente artículo formulen sus observaciones, sugerencias, alternativas y propuestas. Igualmente, se someterá a información pública, pudiendo las personas y entidades interesadas formular alegaciones dentro del mismo periodo. Tras ello, los Departamentos del Gobierno Vasco y la Diputación Foral correspondiente encargados del procedimiento formularán en idéntico plazo la propuesta inicial del programa.

4.– La propuesta inicial será sometida a los informes previstos en los artículos 10 y 12 de la presente ley, que deberán emitirse en el plazo máximo de dos meses desde su recepción, pudiendo prorrogarse hasta un plazo máximo de otro mes por decisión razona-

ren Eusko Jaurlaritzako eta kasuan kasuko foru aldundiko sailen erabaki arrazoituaren ondorioz.

5.– Lehen aipaturiko txostenak emandakoan, nekazaritza eta landa garapenaren alorrean eskudunak diren sailek dekreturako proposamena egingo dute 4.3 atalean ezarritakoaren arabera.

6.– Administrazio publiko eskudunek landa ingurunearen garapenerako programak egiten parte hartzea bultzatuko dute eta parte-hartze hori bermatzen dela zainduko dute, programak egiteko prozesu osoan gainerako administrazio eta erakundeek eta gizarte eta ekonomi agenteek biziki parte hartzea bultzatuz.

HIRUGARREN IDAZPURUA
ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA

*8. atala.–* Administrazioen arteko lankidetza eta koordinazioa

1.– Herri administrazioek lege honen 2 eta 3. ataletan adierazi diren helburuen arabera ezarriko dituzte landa zonaldeetan eragina duten arau, politika eta jarduketak, elkarren artean guztiz koherenteak eta osagarriak izan daitezen.

2.– Landa ingurunearen garapenerako programak batera egin eta betetzeko modua ezarri ahal izango dute herri administrazio eskudunek hitzarmen bidez. Nolanahi ere, 7. atalean ezarritako prozeduraren arabera egingo dira programa horiek.

*9. atala.–* Landaberri.

1.– Landaberri eratzen da, erakundeen arteko lankidetza eta koordinaziorako organoa izan dadin landa garapenari dagokion guztian, eta, hain zuzen ere, organo honen baitan gauzatzen dira lege hau aplikatzeko behar diren lankidetza eta elkarlana. Eusko Jaurlaritzan nekazaritza eta landa garapenaren alorreko eskumenak dituen sailari atxikita egongo da Landaberri. Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundien eta udalen ordezkariek osatuko dute, ondoko osaera honen arabera:

Lehendakaria: Eusko Jaurlaritzan nekazaritza eta landa garapenaren ardura duen sailburua.

Kideak:

– Eusko Jaurlaritzan lurralde antolamenduaren eta industri arloen ardura duten sailburuak.

– Araba, Bizkai eta Gipuzkoako nekazaritza eta landa garapenaren ardura duten foru diputatuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko landa udalerrien hiru ordezkari, lurralde historiko bakoitzeko bat.

da de los Departamentos del Gobierno Vasco y la Diputación Foral correspondiente encargados del procedimiento.

5.– Evacuados los informes anteriores, los Departamentos competentes en materia de agricultura y desarrollo rural elevarán la correspondiente propuesta de decreto con arreglo a lo establecido en el artículo 4.3.

6.– Las Administraciones públicas competentes impulsarán y velarán por garantizar el carácter participativo en la elaboración de los Programas de Desarrollo Rural, impulsando la participación activa del resto de Administraciones y organismos y de los agentes sociales y económicos en todo el proceso de elaboración.

TÍTULO TERCERO
COLABORACIÓN Y COORDINACIÓN INTERADMINISTRATIVA

*Artículo 8.–* Colaboración y coordinación interadministrativa.

1.– Las Administraciones públicas establecerán sus normas, políticas y actuaciones con incidencia en las zonas rurales con adecuación a los objetivos establecidos en los artículos 2 y 3 de la presente ley, en aras de su plena coherencia y complementariedad.

2.– Las Administraciones públicas competentes podrán establecer mediante convenio la elaboración y ejecución conjunta de los Programas de Desarrollo Rural. La elaboración, en todo caso, se ajustará al procedimiento establecido en el artículo 7.

*Artículo 9.–* Landaberri.

1.– Se constituye Landaberri como órgano de colaboración y coordinación interinstitucional en materia de desarrollo rural, en cuyo seno se producen la cooperación y colaboración necesarias para la aplicación de la presente ley. Estará adscrito al Departamento del Gobierno Vasco con atribuciones en el área de agricultura y desarrollo rural. Está formado por representantes del Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y los municipios de la Comunidad Autónoma, con arreglo a la siguiente composición:

Presidente: el Consejero del Gobierno Vasco responsable del área de agricultura y desarrollo rural.

Vocales:

– Los Consejeros del Gobierno Vasco responsables de las áreas de ordenación del territorio y de industria.

– Los Diputados Forales responsables del área de agricultura y desarrollo rural de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

– Un representante de los municipios rurales de cada territorio histórico de la Comunidad Autónoma,

Autonomia Erkidegoaren eremuan ordezkaritzarik handiena duen udalerri elkarteak izendatuko ditu ordezkari hauek.

Gainera, beste sailburu eta foru diputatu batzuek hartuko dute parte Landaberriren bileretan, baita beste herri administrazio batzuek horretarako izendaturiko ordezkariek ere, baldin eta bilera horietan haien eskumeneko gaiak jorratzen badira.

2.– Landaberriren baitan lantaldeak eratu ahal izango dira, ezaugarri bereziak izan eta tratamendu espezializatua merezi duten arazoak aztertzeko. Lantalde horietan, adituek eta ordezkaritza duten elkarte egokiek har dezakete parte.

Halaber, Landa Garapenerako Kontseilu Aholkuemailea eratuko da, landa ingurunearen garapenean eta landa ingurunearen garapenerako programetan inplikaturiko agente ekonomiko eta sozialentzako kontsulta eta lankidetza organoa izateko. Kontseilu hori, Landaberri atxikita dagoen sail berari atxikiko zaio.

3.– Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiei eta Euskal Herrian ordezkaritza handiena duen udalerri elkarteari entzun ondoren, dekretu bidez, Landaberriren antolamendu eta jardunerako arauak ezarriko ditu, eta baita ere Landa Garapenerako Kontseilu Aholkuemailearen (gehienez hamabost kide izango ditu) eta sortzen diren lantaldeen osaera eta jardunbidea. Halaber, Landa Garapenerako Kontseilu Aholkuemaile horrek txostena egingo du landa ingurunearen garapenerako programak onetsi baino lehen.

4.– Hartu beharreko erabakiak hartuko ditu Landaberri atxikita duen sailak, Landaberriri esleitutako eginkizunak behar bezala betetzeko behar den laguntza tekniko eta administratiboa bermatzeko xedeaz.

*10. atala.–* Landaberriren funtzioak.

Legearen beste atal batzuetan jasotako funtzioez gain, ondoko funtzio hauek dagozkio Landaberriri:

a) Landa ingurunearen garapenerako programetarako proposamenak onetsi aurretik, proposamen horiei buruzko txostenak egitea, baldin eta proposamen horiek Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko arloak ukitzen dituzten gaiei buruzkoak badira, 4.3 atalak aurreikusten duenez.

b) Lege egitasmoei, Eusko Jaurlaritzaren dekretu egitasmoei, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen plan eta programei buruzko txostenak egitea —beraiek onetsi aurretik eta nahitaez—, baldin eta egitasmo, plan edo programa horiek eragin nabaria badute landa zonaldeetan, bai zonalde horietako jarduera ekonomikoei, zerbitzuei eta kultur jarduerei buruzkoak direlako, bai garrantzi handiko

designados por la asociación de municipios más representativa en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

Además, participarán en las reuniones de Landaberri los Consejeros y Diputados Forales competentes, así como los representantes designados para ello por parte de otras Administraciones públicas, cuando se trate de asuntos que afecten a las materias de su competencia.

2.– En el seno de Landaberri se podrán crear grupos de trabajo al objeto de atender aquellas cuestiones que por su especificidad merezcan un tratamiento especializado. En dichos grupos de trabajo podrán participar expertos y las organizaciones representativas correspondientes.

Asimismo, se establecerá un Consejo Consultivo de Desarrollo Rural que actuará de órgano de consulta y de colaboración de los diferentes agentes económicos y sociales implicados en el desarrollo rural y en los Programas de Desarrollo Rural, con adscripción al mismo Departamento que Landaberri.

3.– El Gobierno Vasco, oídas las Diputaciones Forales y la asociación de municipios más representativa en el País Vasco, establecerá, mediante decreto, las normas de organización y funcionamiento de Landaberri, así como la composición y funcionamiento del Consejo Consultivo de Desarrollo Rural, que tendrá un máximo de quince integrantes, y de los grupos de trabajo que se creen. Asimismo, dicho Consejo Consultivo de Desarrollo Rural emitirá informe previo a la aprobación de los Programas de Desarrollo Rural.

4.– El Departamento al que esté adscrito Landaberri adoptará los acuerdos necesarios a fin de asegurar el apoyo técnico y administrativo necesario para el correcto ejercicio de las funciones que tiene atribuidas.

*Artículo 10.–* Funciones de Landaberri.

Además de las funciones recogidas en otros artículos de esta ley, son funciones de Landaberri:

a) Informar las propuestas de Programas de Desarrollo Rural previamente a su aprobación, cuando éstas incidan en asuntos que afecten a materias de la competencia del Gobierno Vasco, tal y como prevé el artículo 4, apartado 3.

b) Informar, con carácter previo y preceptivo, los proyectos de ley, los proyectos de decreto del Gobierno Vasco y los planes y programas de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma que afecten de manera importante a tales zonas, bien por referirse de manera específica a las actividades económicas, los servicios y las actividades culturales de las mismas, o por dar lugar a resultados de gran trascenden-

emaitzak dituztelako eta, ondorioz, jarduera eta zerbitzu horien etorkizuneko bideragarritasuna —lege honen bidez ezarritako landa garapenerako politikaren helburuei dagokienez— baldintzaturik geratzen delako. Landaberriri dagokio egitasmo horien eragina ebaluatzea, bere txostenaren pean jarri behar ote diren zehazteko.

II. eranskinean jasotako plan eta programak Landaberriren txostenaren pean jarriko dira; horrek ez du esan nahi, baina, aipaturiko balizkoen barruan dagoen beste edozein plan edo programari eskakizun hori exigituko ez zaionik. Eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean ukituriko administrazioei entzuteko ezartzen diren epeen barruan emango dira, eman ere, lurraldearen antolamendurako tresnei buruzko txostenak.

c) Landa ingurunearen garapenerako programak betetzeko aholkuak ematea.

d) Erakunde eskudunei lege honen xedearekin erlazionaturiko edozein ekimen proposatzea.

*11. atala.–* Landaraba, Landabizkaia, Landagipuzkoa.

1.– Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoa eratzen dira, landa garapenaren arloan erakundeen arteko lankidetza eta koordinaziorako organoak izan daitezen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, hurrenez hurren. Lurraldean lurraldeko foru aldundiak zehaztuko du bertako organoaren osaera.

2.– Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoaren baitan lantaldeak eratu ahal izango dira, ezaugarri bereziak izan eta tratamendu espezializatua merezi duten arazoak aztertzeko. Lantalde horietan, adituek eta ordezkaritza duten elkarte egokiek har dezakete parte.

Halaber, Landa Garapenerako Lurralde Kontseilu Aholkuemailea eratu ahal izango du foru aldundi bakoitzak, lurraldean lurraldeko landa ingurunearen garapenean eta landa ingurunearen garapenerako programetan inplikaturiko agente ekonomiko eta sozialentzako kontsulta eta lankidetza organoa izateko.

3.– Lurraldean lurraldeko foru aldundiak Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoaren antolamendu eta jardunerako arauak ezarriko ditu, eta baita ere Landa Garapenerako Lurralde Kontseilu Aholkuemailearen eta sortzen diren lantaldeen osaera eta jardunbidea.

4.– Hartu beharreko erabakiak hartuko ditu lurraldean lurraldeko foru aldundiak, Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoari esleitutako eginkizunak behar bezala betetzeko behar den laguntza tekniko eta administratiboa bermatzeko xedeaz.

cia para todo ello, de manera que se condicione la viabilidad futura de tales actividades y servicios en relación con los objetivos de la política de desarrollo rural establecidos por la presente ley. Corresponderá a Landaberri evaluar el grado de afección de tales proyectos a efectos de determinar la necesidad de que sean sometidos a su informe.

Sin perjuicio de su exigencia a cualesquiera otros planes y programas comprendidos en los supuestos señalados, serán sometidos a informe de Landaberri los contenidos en el Anexo II. En el caso de los informes referidos a instrumentos de ordenación del territorio, los mismos se emitirán en los plazos establecidos por la ley de Ordenación del Territorio para los periodos de audiencia a las Administraciones afectadas.

c) Formular recomendaciones sobre la ejecución de los Programas de Desarrollo Rural.

d) Proponer a las instituciones competentes cualquier clase de iniciativa en relación con el objeto de esta ley.

*Artículo 11.–* Landaraba, Landabizkaia, Landagipuzkoa.

1.– Se constituyen Landaraba, Landabizkaia y Landagipuzkoa como órganos de colaboración y coordinación interinstitucional en materia de desarrollo rural en los territorios históricos respectivos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa. Su composición será determinada por la Diputación Foral correspondiente.

2.– En el seno de Landaraba, Landabizkaia y Landagipuzkoa se podrán crear grupos de trabajo al objeto de atender aquellas cuestiones que por su especificidad merezcan un tratamiento especializado. En dichos grupos de trabajo podrán participar expertos y las organizaciones representativas correspondientes.

Asimismo, cada Diputación podrá establecer un Consejo Consultivo Territorial de Desarrollo Rural que actuará de órgano de consulta y de colaboración de los diferentes agentes económicos y sociales implicados en el desarrollo rural y en los Programas de Desarrollo Rural del territorio histórico correspondiente.

3.– La Diputación Foral respectiva adoptará las normas de organización y funcionamiento de Landaraba, Landabizkaia y Landagipuzkoa, así como la composición y funcionamiento del Consejo Consultivo Territorial de Desarrollo Rural y los grupos de trabajo que se creen.

4.– La Diputación Foral respectiva adoptará los acuerdos necesarios a fin de asegurar el apoyo técnico y administrativo necesario para el correcto ejercicio de las funciones que tienen atribuidas Landaraba, Landabizkaia y Landagipuzkoa.

*12. atala.–* Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoaren funtzioak.

Legearen beste atal batzuetan jasotako funtzioez gain, ondoko hauek dira Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoaren funtzioak:

a) Landa ingurunearen garapenerako programetarako proposamenei buruzko txostenak egitea, proposamen horiek lurraldean lurraldeko foru aldundiari aurkeztu baino lehen.

b) Foru arauen egitasmoei, foru aldundiaren dekretu egitasmoei, eta lurraldean lurraldeko plan eta programei buruzko txostenak egitea —beraiek onetsi aurretik eta nahitaez—, baldin eta egitasmo, plan edo programa horiek eragin nabaria badute landa zonaldeetan, bai zonalde horietako jarduera ekonomikoei, zerbitzuei eta kultur jarduerei buruzkoak direlako, bai garrantzi handiko emaitzak dituztelako eta, ondorioz, jarduera eta zerbitzu horien etorkizuneko bideragarritasuna —lege honen bidez ezarritako landa garapenerako politikaren helburuei dagokienez— baldintzaturik geratzen delako.

III. eranskinean jasotako plan eta programak Landaraba, Landabizkaia eta Landagipuzkoaren txostenaren pean jarriko dira; horrek ez du esan nahi, baina, aipaturiko balizkoen barruan dagoen beste edozein plan edo programari eskakizun hori exigituko ez zaionik. Eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean ukituriko administrazioei entzuteko ezartzen diren epeen barruan emango dira, eman ere, lurraldearen antolamendurako tresnei buruzko txostenak.

c) Landa ingurunearen garapenerako programak betetzeko aholkuak ematea, zeinek bere lurralde historikoaren baitan.

d) Erakunde eskudunei lege honen xedearekin erlazionaturiko edozein ekimen proposatzea.

*13. atala.–* Landa ingurunearen garapenerako elkarteak.

1.– Jaurlaritzak ezarriko ditu landa ingurunearen garapenerako elkarteak aintzatesteko eskakizunak. Elkarte horiek zuzenbide pribatuko entitateak izango dira, eta landa ingurunearen garapenerako harako programa batek barne hartzen duen zonaldeko sektore ekonomiko eta sozialen ordezkari izango dira. Bestetik, nekazaritzan eta landa garapenean eskumena duten herri administrazioek hartu ahal izango dute parte elkarteotan.

2.– Ofizialki aintzatesten diren landa ingurunearen garapenerako elkarteekiko hitzarmenen baten bidez zehaztu ahal izango da elkarteok zer nolako parte-hartzea izango duten eta zer nolako lana egingo duten landa ingurunearen garapenerako programen barruko jarduketetan. Hitzarmen horietan ezarriko

*Artículo 12.–* Funciones de Landaraba, Landabizkaia y Landagipuzkoa.

Además de las funciones recogidas en otros artículos de esta ley, son funciones de Landaraba, Landabizkaia y Landagipuzkoa:

a) Informar las propuestas de Programas de Desarrollo Rural previamente a su elevación a la Diputación Foral correspondiente.

b) Informar, con carácter previo y preceptivo, los proyectos de norma foral, los proyectos de decreto de la Diputación Foral y los planes y programas del territorio histórico correspondiente que afecten de manera importante a tales zonas, bien por referirse de manera específica a las actividades económicas, los servicios y las actividades culturales de las mismas, o por dar lugar a resultados de gran trascendencia para todo ello, de manera que se condicione la viabilidad futura de tales actividades y servicios en relación con los objetivos de la política de desarrollo rural establecidos por la presente ley.

Sin perjuicio de su exigencia a cualesquiera otros planes y programas comprendidos en los supuestos señalados, serán sometidos a su informe los contenidos en el Anexo III. En el caso de los informes referidos a instrumentos de ordenación del territorio, los mismos se emitirán en los plazos establecidos por la ley de Ordenación del Territorio para los periodos de audiencia a las Administraciones afectadas.

c) Formular recomendaciones sobre la ejecución de los Programas de Desarrollo Rural del respectivo territorio histórico.

d) Proponer a las instituciones competentes cualquier clase de iniciativa en relación con el objeto de esta ley.

*Artículo 13.–* Asociaciones de Desarrollo Rural.

1.– Por el Gobierno se establecerán los requisitos para el reconocimiento de Asociaciones de Desarrollo Rural, con el carácter de entidades de derecho privado representativas de los diferentes sectores económicos y sociales de la zona comprendida en un Programa de Desarrollo Rural, pudiendo participar las diferentes Administraciones públicas con competencias en materia agraria y de desarrollo rural.

2.– Mediante convenio con las Asociaciones de Desarrollo Rural oficialmente reconocidas se podrá establecer su participación y colaboración en las actuaciones comprendidas en los Programas de Desarrollo Rural correspondientes. En tales convenios se establecerá el sometimiento de estas asociaciones a la

da elkarte hauek nahitaez egongo direla jaso edo kudeatzen dituzten fondo publikoen erabileraren fiskalizazioaren menpean.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.–*

Euskal Autonomi Elkarteko nekazal ustiakuntzen aldeko laguntzei buruzko uztailaren 30eko 210/1990 Dekretuan xedatutakoa lege honen arabera egokituko du Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiei entzun ondoren.

*Bigarrena.–*

Mendi nekazaritzako elkarteen araubidea lege honen arabera egokituko du Eusko Jaurlaritzak.

*Hirugarrena.–*

Landa ingurunearen garapenerako programaren bat garatzeko proiekturik onetsiz gero, ukituriko ondasun eta eskubideak herri onurakoak direla eta presaz atzeman behar direla adieraziko da nahitaez, derrigorrezko desjabetzapenari buruzko legeriaren ondoreetarako.

Ondasun eta eskubideak herri onurakoak direla eta presaz atzeman behar direlako adierazpenak eragina izango du, halaber, proiektuen birplanteatzeak eta gerora onesten diren aldaketek ukituriko ondasun eta eskubideetan. Horretarako, ukituriko ondasun eta eskubideen banan-banako zerrenda jaso behar dute proiektuek eta ondorengo aldaketek.

*Laugarrena.–*

Herri sozietateek eta zuzenbide pribatuko herri erakundeek, baita 13.2 atalean aurreikusitako landa ingurunearen garapenerako elkarteek ere, baldin eta lege honetan jarri diren helburuak lortzea xedetzat badute, publikotasunaren, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioen arabera jardungo dute kontratuei, langileriari eta dirulaguntzei dagokien guztian.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

*Bakarra.–*

Landa ingurunearen garapenerako programak I. eranskinean xedatutako lurralde-eremuen gain aplikatuko dira hasiera batean. Halaber, foru aldundi bakoitzak, 9. eta 11. ataletan ezarritako organoek txostena egin ondoren, landa ingurunearen garapenerako programen aplikazio-eremua zabaldu ahal izango du 5.1 atalean ezarritako irizpideak betetzen dituzten beste zonalde batzuetara.

fiscalización de la correcta utilización de los fondos públicos que perciban o gestionen.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–*

Por el Gobierno se establecerá la adaptación a la presente ley de lo establecido en el Decreto 210/1990, de 30 de julio, sobre Ayudas a las Explotaciones Agrarias del País Vasco, oídas las Diputaciones Forales.

*Segunda.–*

El Gobierno procederá a adaptar a la presente ley el régimen de las Asociaciones de Agricultura de Montaña.

*Tercera.–*

La aprobación de proyectos en desarrollo de los Programas de Desarrollo Rural supondrá la declaración de utilidad pública y llevará implícita la declaración de necesidad de ocupación urgente de los bienes y derechos a efectos de la legislación de expropiación forzosa.

La declaración de utilidad pública y la necesidad de ocupación se referirá también a los bienes y derechos comprendidos en el replanteo de los proyectos y en las modificaciones que puedan aprobarse posteriormente. A tal efecto, los proyectos y sus modificaciones posteriores deberán contener la relación individualizada de los bienes y derechos a afectar.

*Cuarta.–*

Las sociedades públicas y los entes públicos de derecho privado, así como las asociaciones de desarrollo rural previstas en el artículo 13.2, que tengan entre sus fines la consecución de los objetivos definidos en la presente ley ajustarán su actividad contractual, de personal y subvencional a los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

*Única.–*

Los Programas de Desarrollo Rural se aplicarán, inicialmente, sobre los ámbitos territoriales determinados en el Anexo I. Asimismo, cada Diptuación Foral, previo informe de los órganos establecidos en los artículos 9 y 11, podrá ampliar el ámbito de aplicación de los Programas de Desarrollo Rural a otras zonas que cumplan los criterios establecidos en el artículo 5.1.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenegoa.–*

Lege hau indarrean jarri eta 30 eguneko epearen barruan eratuko da Landaberri.

*Bigarrena.–*

Lege hau indarrean jarri eta bi urteko epearen barruan egin behar dira I. eranskinean zehaztutako zonaldeen landa garapenerako programak.

*Hirugarrena.–*

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Beraz, lege hori men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko apirilaren 20an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–*

Landaberri se constituirá en un plazo no superior a 30 días a partir de la entrada en vigor de la presente ley.

*Segunda.–*

En un plazo máximo de dos años a partir de la entrada en vigor de la presente ley, deberán ser elaborados los Programas de Desarrollo Rural correspondientes a las zonas determinadas en el Anexo I.

*Tercera.–*

La presente ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## I. ERANSKINA / *ANEXO I*

| ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA / *TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA* | |
|---|---|
| ARABAKO HARANAK / *COMARCA VALLES ALAVESES* | Armiñón<br>Berantevilla<br>Kuartango<br>Lantarón<br>Ribera Alta<br>*Ribera Baja* / Erribera Beitia<br>Añana<br>Valdegovía<br>Zambrana |
| ARABAKO MENDIALDEA / *COMARCA MONTAÑA ALAVESA* | Bernedo<br>*Campezo* / Kanpezu<br>Lagrán<br>Arraia-Maeztu<br>Peñacerrada<br>Urizaharra<br>Harana/*Valle de Arana* |
| ARABAKO ERRIOXA / *COMARCA RIOJA ALAVESA* | Baños de Ebro<br>Mañueta<br>Kripan<br>Elciego<br>*Elvillar* / Bilar<br>Labastida<br>Laguardia<br>*Lanciego* / Lantziego<br>Lapuebla de Labarca<br>Leza<br>Moreda de Álava<br>Navaridas<br>*Oyón* / Oion<br>Samaniego<br>Villabuena de Álava<br>Eskuernaga<br>Yécora |
| GORBEIALDEA / *COMARCA ESTRIBACIONES GORBEA* | Aramaio<br>Urkabustaiz<br>Zigoitia<br>Zuia |
| AIARA / *COMARCA AYALA* | Artziniega<br>Ayala / Aiara<br>Okondo |
| ARABAKO LAUTADA / *COMARCA LLANADA ALAVESA* | Barrundia<br>Elburgo<br>Iruraiz-Gauna<br>San Millán Donemiliaga<br>Zalduondo |

| BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA / *TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA* | |
|---|---|
| ARRATIA-NERBIOIKO ESKUALDEA<br>*COMARCA ARRATIA-NERVIÓN* | Arantzazu<br>Areatza<br>Artea<br>Zeanuri<br>Zeberio<br>Dima<br>Orozko<br>Otxandio<br>Ubide |
| ENKARTERRIAK / COMARCA ENCARTACIONES | Arcentales<br>Carranza<br>Galdames<br>Lanestosa<br>Sopuerta<br>*Trucios* / Turtzioz |

| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA / *TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA* | |
|---|---|
| TOLOSA-UROLA KOSTALDEA<br>*COMARCA TOLOSA-UROLA COSTA* | Aia<br>Albiztur<br>Alkiza<br>Asteasu<br>Beizama<br>Bidegoyan<br>Errezil<br>Hernialde<br>Larraul |

II. ERANSKINA

– Euskal Landa Ingurunea Garatzeko Jarduera Plana.

– 5b helburuaren barruko zonaldeetan jarduteko programak.

– Leader ekimeneko jardun programak.

– Euskadiko Baso Plangintza.

– Parke naturalen eta babestutako biotopoen deklarazioa, baita babestutako naturagune horietako natur baliabideen antolamendurako planak edo erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak, edota plan horien aldaketa eta berrikuspenak ere, baldin eta aipaturiko naturagune horiek barne hartzen badute, osorik edo zati batez, I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat.

– Parke naturalen edo babestutako biotopoen lurraldeko bizilagunen garapen sozioekonomikorako programak, baldin eta aipaturiko naturagune horiek barne hartzen badute, osorik edo zati batez, I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat.

– I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat —osorik edo zati batez— barne hartzen duten lurralde plan sektorialak, ondoko zerrenda honen arabera:

* Nekazaritza eta Basorako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

* Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

* Harrobi Zonetarako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

* Etxibizitzen Sustapen Publikorako Lurzoruetarako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

* Ekonomi Ihardueretarako Lurzoru Publikoa Sortzeko Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

* Euskadiko Baliabide Turistikoak Antolatzeko Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

* Telekomunikazioetarako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

* Gasaren Garraioa eta Banaketa Antolatzeko Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

* Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetako Plan Hidrologikoa.

* Hondakin Uren Saneamendu eta Arazketarako Gida Plana.

* Kultur Ondareari buruzko Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

ANEXO II

– Plan Estratégico Rural Vasco.

– Programas operativos de zonas Objetivo 5b.

– Programas operativos Leader.

– Plan Forestal Vasco.

– La declaración de parques naturales y biotopos protegidos, así como los planes de ordenación de los recursos naturales y planes rectores de uso y gestión de tales espacios naturales protegidos, así como sus modificaciones y revisiones, que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Los programas para desarrollo socioeconómico de las poblaciones integradas en el territorio de parques naturales o biotopos protegidos que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Los Planes Territoriales Sectoriales que comprendan, en todo o parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1, correspondientes a la siguiente relación:

* Plan Territorial Sectorial Agrario y Forestal.

* Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

* Plan Territorial Sectorial de Zonas Canterables.

* Plan Territorial Sectorial de Suelo para Promoción Pública de Viviendas.

* Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas.

* Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Recursos Turísticos de Euskadi.

* Plan Territorial Sectorial de Telecomunicaciones.

* Plan Territorial Sectorial para la Ordenación del Transporte y Distribución de Gas.

* Plan Hidrológico de las Cuencas Internas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

* Plan Director de Saneamiento y Depuración de las Aguas Residuales.

* Plan Territorial Sectorial del Patrimonio Cultural.

* Hezkuntza, Osasun eta Kulturako Ekipamenduak Antolatzeko Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planak.

– I. eranskineko zonaldeetariko baten baten zatirik edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten baten zatirik barne hartzen duten alde funtzionaletarako lurralde plan partzialak.

– Epe Ertainerako Plan Ekonomikoa.

– Industri Politika. Jarduketa Esparru Orokorra.

– Eskualde turistikoen deklarazioa eta Baliabide Turistikoen Antolamendurako Plan Estrategikoa, baldin eta barne hartzen badute, osorik edo zati batez, I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat.

– Eskola bilguneak sortu, aldatu eta ezabatzea, eta eskola bilguneen lurralde eremua zehaztea, baldin eta barne hartzen badute, osorik edo zati batez, I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat.

– I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat —osorik edo zati batez— barne hartzen duten osasun aldeen, osasun eskualde eta azpieskualdeen eta osasun zonaldeen zehaztapena.

– I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat —osorik edo zati batez— barne hartzen duten farmazi zonaldeen zehaztapena.

– Euskadiko Herri Babeserako Plana.

– Lurraldean lurraldeko herri babeserako planak, baldin eta barne hartzen badute, osorik edo zati batez, I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat.

– Etxebizitza planak

– Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorra.

– I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat —osorik edo zati batez— barne hartzen duten aldeetako oinarrizko kirol azpiegituraren zehaztapena.

– I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat —osorik edo zati batez— barne hartzen duten ureztapen planak.

– Erkidegoarteko arroetarako plan hidraulikoak, baldin eta eraginik badute I. eranskineko lurralde eremuetariko baten batean edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten batean, edota haietariko zatiren batean.

* Planes Territoriales Sectoriales para la Ordenación de los Equipamientos Docentes, Sanitarios y Culturales.

– Planes Territoriales Parciales de las áreas funcionales que comprendan parte de alguna de las zonas comprendidas en el Anexo I o de las delimitadas con arreglo al artículo 5.1.

– Plan Económico a Medio Plazo.

– Plan Estratégico de Política Industrial.

– Declaración de Comarca Turística y Plan Estratégico de Ordenación de los Recursos Turísticos que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Creación, modificación y supresión de circunscripciones escolares y determinación de su ámbito geográfico, cuando comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Establecimiento de áreas sanitarias, comarcas y subcomarcas sanitarias y zonas de salud que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Determinación de las zonas farmacéuticas que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– El Plan de Protección Civil de Euskadi.

– Los Planes de Protección Civil Territoriales que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Planes de vivienda.

– Plan General de Carreteras del País Vasco.

– Determinación de la infraestructura deportiva básica de las áreas territoriales que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Planes de regadíos que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Planes hidráulicos de cuencas intercomunitarias que afecten, en todo o en parte, a alguno de los ámbitos territoriales establecidos en el Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

III. ERANSKINA

– Euskal Landa Ingurunea Garatzeko Jarduera Plana.

– 5b helburuaren barruko zonaldeetan jarduteko programak.

– Leader ekimeneko jardun programak.

– Euskadiko Baso Plangintza.

– Parke naturalen eta babestutako biotopoen deklarazioa, baita babestutako naturagune horietako natur baliabideen antolamendurako planak edo erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak, edota plan horien aldaketa eta berrikuspenak ere, baldin eta aipaturiko naturagune horiek barne hartzen badute, osorik edo zati batez, I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat.

– Parke naturalen edo babestutako biotopoen lurraldeko bizilagunen garapen sozioekonomikorako programak, baldin eta aipaturiko naturagune horiek barne hartzen badute, osorik edo zati batez, I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat.

– Nekazaritza eta Basorako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.

– Foru aldundien errepide planak —toki errepideak barne—, baldin eta barne hartzen badute, osorik edo zati batez, I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat.

– I. eranskineko lurralde eremuetariko baten bat edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten bat —osorik edo zati batez— barne hartzen duten ureztapen planak.

– Obra eta zerbitzuetarako foru planak, baldin eta eraginik badute I. eranskineko lurralde eremuetariko baten batean edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten batean, edota haietariko zatiren batean.

– Erkidegoarteko arroetarako plan hidraulikoak, baldin eta eraginik badute I. eranskineko lurralde eremuetariko baten batean edo 5.1 atalaren arabera mugaturikoetariko baten batean, edota haietariko zatiren batean.

ANEXO III

– Plan Estratégico Rural Vasco.

– Programas operativos de zonas Objetivo 5b.

– Programas operativos Leader.

– Plan Forestal Vasco.

– La declaración de parques naturales y biotopos protegidos, así como los planes de ordenación de los recursos naturales y planes rectores de uso y gestión de tales espacios naturales protegidos, así como sus modificaciones y revisiones, que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Los programas para desarrollo socioeconómico de las poblaciones integradas en el territorio de parques naturales o biotopos protegidos que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Plan Territorial Sectorial Agrario y Forestal.

– Planes de las Diputaciones Forales en materia de carreteras, incluyendo las vías locales, cuando comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Planes de regadíos que comprendan, en todo o en parte, alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Planes forales de obras y servicios que afecten, en todo o en parte, a alguno de los ámbitos territoriales del Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.

– Planes hidráulicos de cuencas intercomunitarias que afecten, en todo o en parte, a alguno de los ámbitos territoriales establecidos en el Anexo I, o de los delimitados con arreglo a lo establecido en el artículo 5.1.